



UDALETAKO EUSKARA  
ZERBITZUEN TOPAKETAK  
[www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus)



**IZENBURUA:**

Bat eta bat hamaika. Beste urrats bat aspaldiko elkarlanean Getxon.

**EGILEA:**

Alaitz Villate eta Koldo Iturbe

**DATA:**

2018/05/17

# udaltop

UDALETAKO EUSKARA  
ZERBITZUEN TOPAKETAK  
[www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus)



## Aurkibidea

1. Hizkuntza politikaren ardatza.....	1
2. Zelan egiten dugu Getxon? .....	1
3. Hitzarmenak .....	2
4. Euskaraldia.....	2
5. Irribizia .....	2
6. Nola hasi ginen? .....	3
7. Zer egin dugu? .....	3
8. Getxoztarrak.eus zertarako? .....	3
9. Urratsez urrats aurrera .....	4
10. Datorkiguna .....	4



## 1. Hizkuntza politikaren ardatza

---

1. Instituzioen ikuspegitik, euskara sustatzeak badu hasierako zailtasun bat; hizkuntza bat banakoaren ahoetan gauzatzen da neurri handi batean.
2. baina banakoek beste batzuekin, jendarte batean egiten dute berba.
3. Gure ustez, instituzio baten zeregina ez da izan behar jendeari euskaraz egiteko eskatzea; bai ostera, euskaraz egiteko giro sozial egoki bat sortzea; euskaraz egiteko ohitura arrunta eta ohikoa izateko guneak, txokoak, giroak ahalbidetzea, laguntzea, babestea ...
4. Getxoko udalak, gutxienez 2001etik, horrela jokatu du, hau izan da bere hizkuntza politikaren ardatza.

## 2. Zelan egiten dugu Getxon?

---

1. Jendarte edo klima sozial hori sortzeko helburua partekatzen dugu Euskalgintzarekin; batuta eragin ahal dugu baina banatuta ez.
2. Getxoko udalak esan dezake euskalgintzarekin ELKARLANEAN ari dela aspalditik.
3. Eta ELKARLANEAN jarduteko hitz klabea KONFIDANTZA da; pertsonen arteko konfiantza; mahaiaren beste aldean esertzen denak helburu berdina edo antzekoak dituela pentsatzea.
4. Elkarlanean oinarrituta, udalerrian erabat errotuta dauden hainbat egitasmo garatzen ditugu
  - SENDI
  - BAPIRUKÉ umeen aisialdi programa
  - Toponimia ibilbideak, herriko ondarea ezagutzera emateko ibilbide gidatuak
  - Berbalaguna
  - Kultur Elkarteetan eragitea, GEHITU KULTURA programaren bidez.
  - Kirol erakundeetan eragitea, GEHITU KIROLA programaren BARRUAN



## 3. Hitzarmenak

---

Elkarlana hitzarmenetan gauzatzen da. Hitzarmenak babes politikoa, ekonomikoa eta juridikoa ematen du.

Hitzarmenak ditugu euskalgintza osatzen duten ondorengo elkarteekin:

- ALBE (bertso eskola)
- EGIZU (ekimen praktikoak eta dinamizazioa)
- BL (euskara elkartearekin, hiztun komunitatea trinkotzeko)
- HIRUKA (Euskarazko hedabideak)

Eta hitzarmenez gain, elkarlana asko errazten duen beste kontu bat: euskalgintza elkarte guztiek udal-eraikin berean daude.

Aurreko guztiak onurak ekartzen dizkie alde biei:

- Euskalgintza Elkartearentzat egonkortasuna, segurtasuna da eta profesionalizatorako aukera.
- udalarentzat kalitatezko zerbitzua eskaintzeko aukera; hainbat kasutan eskaintza pribaturik ere ez dagoenean eta gainera jende konprometitua eta jantziaren eskutik.

## 4. Euskaraldia

---

1. EUSKARALDIA eta 365 ildo estrategikoa proposatu direnean, erraza izan da elkarlana euskalgintzako agenteekin. Era berean, gainontzeko alderdiekin ere erraz lortu da adostasuna.
2. Hitzarmen berria egin da. EUSKARALDIAk eskatuko dituenak aurreikusi dira eta partida eta eginkizunak handitu,

Alaitzek azalduko du zertan gauzatzen den EUSKARALDIAren egunerokoa baina amaitu aurretik guk erabiliko dugun hirugarren figuraren defentsa egin nahi dut:

## 5. Irribizia

---

Getxon, Ahobizi eta Belarriprestaz gain, hirugarren figura bat sortu dugu, **IRRIBIZIA**; euskararik ulertu ez arren, IRRIBIZIA ados dago bere aurrean euskaraz aritzearekin; poztu egiten da, irri egiten du, ez du mehatxurik sentitzen, ez du txarto ikusten.

Gure herrian, biztanleen %40ak ez du euskararik ulertzen baina hasieran esaten nuen euskara erabiltzeko mikroklima hori ahalbidetzeko beharrezkoak ditugu. Euskaldunon komunitatea trinkotu behar dugu baina horrek ez du gatazkarako biderik eman behar.



1981ean euskararen errealitatea gaur egunekoa baino gordinagoa zen, batez ere Bilbo inguruko herrietan eta nola ez Uribe Kostan; eta egungo egoera neurri handi batean euskaraz ez dakiten pertsonei esker bizi dugu.

Euskaraz ez zekien jendeak sortu zituen ikastolak; euskararen aldeko jaialdietan egon ziren; euskarazko ereduetan matrikulatu zituzten seme-alabak; beti sustatu eta indartu dituzte euskarazko kultur adierazpenak ...

- EUSKARAK 365 eta EUSKARALDIA izeneko paradigma aldaketa hauetan, gizartea osotasunean, erdaldunak barne, sistema bezala ikusi behar dugu planteatzen den aldaketak fruituak izateko.
- Euskara ez dakien jendea kontuan hartzea, eskerrak emateko modu bat ere bada.
- Euskaradunon komunitatea trinkotzea bilatzen dugu baina hori komunitate handiago baten barruan izango da eta komunitate horretako partaide guztiei komunikatu behar diegu hori.

## 6. Nola hasi ginen?

---

Iaz Euskaltzaleon Topaguneko kideok *Euskarak 365 egun* dinamikan eman beharreko urratsak adostu genituen eta udaberri hasieran EUSKARALDIAren berri izan genuen.

Bizarra Lepoan Euskara elkarteko kideok argi izan genuen Udalarekin harremanetan jarri behar genuela lehenbailehen egitasmo horri heldu ahal izateko.

Hori dela eta, uztailean egin beharreko azterketa eta kalkulu ekonomikoak eginda, lehenengo bilera izan genuen. EUSKARALDIA Getxon aurrera eramateko langile berri baten kontratazioa ezinbestekotzat jo genuen eta Getxoko Udalaren baiezko borobila jaso genuen. Baiezkoa, hitzarmenean gauzatu zen 2017an. EUSKARALDIA Getxon aurrera eramateko langile bat kontratatu dugu 2017ko irailetik lanean dagoena: hasieran 4 orduz eta ekimena hurbildu ahala 6 ordutara.

## 7. Zer egin dugu?

---

11 egun euskaraz egitasmoa 2018ko azarotik abendura gauzatuko den arren, argi izan dugu bai udalak bai elkarteak egitasmoa herriari zabaldu behar geniola. Horrela, urria eta azaroa bitarte herriko euskaltegi, ikastetxe, kultur eta kirol elkarteei azaldu genien zein zen gure asmoa. Eta asmo hori, abenduaren 3ko ekitaldi jendetsuan publiko egin genuen Areetan. Mila lagun baino gehiago batu ginen bertan, euskararen alde.



## 8. Getxoztarrak.eus zertarako?

---

Herritarrei zer egin nahi dugun eta nola egin nahi dugun azaltzeko, [getxoztarrak.eus](http://getxoztarrak.eus) komunitate digitala sortu dugu. Bertan, ekimenaren nondik norakoak azaltzen dira. Web gune honek ahobizi, belarriprest edo irribizi izan nahi duten herrikideekin harremanetan jartzeko aukera ematen digu eta norbanakoak bere atxikimendua eman dezake.

Getxon jadanik atxikimenduak jasotzen ari gara, Maiatzaren 24an *Getxon 24 ordu euskaraz* egitasmoa egingo dugulako. Bi helburu ditu ekimenak: Batetik, EUSKARALDIaren publizitatea egin nahi dugu eta 11 egun horietan biziko dugunaren entsegua egin egun oso batez eta, bestetik, AHOBIZI, BELARRIPREST edo IRRIBIZI izatea zer den ondo azaldu getxotarrei. Egun bakarrean bizitako esperientzietatik ikasi nahi dugu 11 egun horietan egin behar ez direnak eta egin beharrekoak ondo zehazteko.

## 9. Urratsez urrats aurrera

---

Horrez gain, auzoetako talde sustatzaileak martxan ditugu jadanik. Apirilaren 24an beste herrietako esperientziak ezagutzeko mahai – ingurua antolatu genuen: Derio, Lasarte eta Aguraingo lagunak izan genituen gurean.

Euskarak 365 egun zurrumurrurik gabe ekimenarekin elkarlanean ari gara. Ekimen honek euskara, immigrazioa eta emakumea gaiak lantzea du helburu. Horretarako, apirilaren 26an Xabier Aierdirekin solasaldia antolatu genuen. Berarekin batera Hajar Samadi (Eibar), Nihad Ben Omar (Leioa) eta Katia Henriquez (Getxo) parte hartu zuten solasaldian euskara eta immigrazioaz berba egiteko. Maiatzaren 10ean berriz, Idurre Eskisabel izango dugu emakumea, immigrazioa eta euskara gaietara heltzeko.

Getxoko hamaikakoa maiatzaren 9an aurkeztu dugu eta lanean dago.

Informazio puntuak egongo dira udaberrian herriko hainbat komertziotan eta maiatzeko zenbait asteburutan informazio guneak jarriko ditugu herriko txoko ezberdinetan.

## 10. Datorkiguna

---

Uda ere bero datorkigu: herriko jaietan zein kultur eta kirol ekitaldietan informazio eta izen emate puntuak jarriko ditugu EUSKARALDIaren berri emateko.

Getxon irailetik aurrera azken txanpari ganoraz ekingo diogu eta gure onena emateko prest egongo gara. Orain arte posible egin badugu, 11 egun euskaraz lortuko ditugu!